

5. ARTIKULUA

Oinarrizko Hezkuntzaren printzipio orokorrak

- Oinarrizko Hezkuntza Euskadiko hezkuntza-sistemaren printzipioen arabera antolatzen da.
- 1. Oinarrizko Hezkuntzak unibertsala eta derrigorrezkoa izan behar du. Inklusioa eta ekitatea bermatu behar ditu ikasleen artean. Izaera hori zehaztu behar da ezagutza-maila eta -esparru guztietako hezkuntza-jarduketetan eta -jardueretan.
- 2. Oinarrizko Hezkuntzan, arreta berezia emango zaio ikasleen arretari eta hezkuntza-orientazioari, betiere norberaren ezagutza, potentzialtasunen garapen maximoa eta prestakuntza-jarraitutasuna sustatzeko. Ikasleen autonomia bultzatuko da eta lan-ohiturak indartuko dira. Ikastetxeek familiekin eta legezko tutoreekin batera lan egin beharko dute hezkuntza-prozesua babesteko.
- 3. Oinarrizko Hezkuntza hezitzailea eta orientatzailea izango da, garapen pertsonalaren, familiarraren, soziokulturalaren, akademikoaren eta profesionalaren arloetako alderdietan. Irakasle guztiak dagokien hezkuntza-etapatik eta curriculum-arlo edo jakintzagai modu bateratu eta koordinatuan esku hartzen duten hezitzaileak dira, eta lankidetzan jarduten dute baterako hezkuntza-arduradunekin, nagusiki familiekin edo legezko tutoreekin eta gizarteratzearen eta hezkuntza arloko instantziekin eta eragileekin.
- 4. Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaren zehaztapena eta garapena bideratu beharko da ikasle guztiak gizarteratzera, garapen pertsonal orekatua izatera, herritartasun kritikoa, berdintasunezko, aktibo eta konstruktiboa eraikitzen, eta geroztiko prestakuntza-prozesuetarako sarbidea erraztera. Helburu horiek hertsiki erlazionatuta daude (I. eranskinean) zehazten den irteera-profilarekin.
- 5. Oinarrizko Hezkuntzak berau osatzen duten bi etapen arteko koherentzia bermatuko du. Era berean, Haur Hezkuntzatik Oinarrizko Hezkuntzara eta Oinarrizko Hezkuntzatik Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondokora behar bezala iragaten dela ziurtatu beharko du.
- 6. Hezkuntza-ekintza inklusiboak askotariko esperientziak, erreferenteak eta ikaskuntzak eskainiko ditu, kulturarteko ikuspegi globaletik, eta ez etnozentrkotik eta androzentrkotik. Modu pertsonalizatuan egokituko zaio ikasle guztien eboluzio-uneari eta ikaskuntza-erritmo pertsonalari.
- 7. Hezkuntza-praktika prestakuntza-eredu kolaboratiboan oinarrituko da, dinamika globalizatuak eta kooperatiboak bultzatzeko, ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren barruan. Ikaskuntza-prozesuak hobetuko dituzten ingurune presentzial eta digital berrietarantz joko da. Era berean, ikaslea bere ikaskuntzaren motor izango den kultura sustatuko da.
- 8. Oinarrizko Hezkuntzak ikuspegi humanistatik prestatuko ditu ikasleak jakintzak eta balioak bereganatzeko, gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta konprometituagoa eraiki dadin. Horretarako, alderdi kognitiboak, emozionalak eta etikoak uztartu beharko dira.
- 9. Ikastetxeek bertara sartzeko eta bertan egoteko aukera-berdintasuna sustatuko dute, ikasleak onartzeko araudiaren arabera. Horretarako, ikasle guztiei hezkuntza-aukera berak eskainiko dizkiete, eta diskriminazio positiboko ekintza inklusiboak egingo dituzte, –hezkuntza-prozesuan laguntzeaz gainera eskola-porroterako arriskua aurreikusiko dutenak–, desabantaila ekonomiko, sozial, kultural edo pertsonalak dituztenen alde.
- 10. Oinarrizko Hezkuntzako arloek eta jakintzagaiek curriculumean euskal kulturaren dimentsio espezifikoa txertatuko dute eta funtsezko konpetentzia guztiak garatzen lagunduko dute.